ESPEDIENTE ZBK.
EXPEDIENTE N.º
2019 / 02

DONOSTIA KULTURAKO KOMUNIKAZIO SAILERAKO BIDEOAK GRABATU, EDITATU ETA POSPRODUZITZEKO ZERBITZUA, PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ, KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN XEDEA

2. ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

3. LAN-METODOLOGIA

IFK-CIF: Q2000544I

DONOSTIA KULTURAKO KOMUNIKAZIO SAILERAKO BIDEOAK GRABATU, EDITATU ETA POSPRODUZITZEKO ZERBITZUA, PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ, KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da DONOSTIA KULTURAko Komunikazio Sailerako bideoak grabatzea, editatzea eta posproduzitzea, Agiri honetan aurreikusitakoaren arabera eta Administrazio-Klausula Zehatzen Agiriaren arabera.

Zerbitzu hau DONOSTIA KULTURAko Komunikazio Sailaren zuzendaritzapean eta kontrolpean eskainiko da eta Komunikazio Estrategiarekin bat etorriko da.

Kontratuaren CPV kodeak ondokoak dira:

- 92100000-2: Zinema- eta bideo-zerbitzuak

Karatulako 2.1 puntuarekin bat, Agiri hauetan "DONOSTIA KULTURA"ri buruz egingo diren erreferentzia generiko guztiak ulertuko da, ezen:

- DONOSTIA KULTURA ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOARI buruzkoak direla, hiru entitate kontratatzaileetako bakoitzarekin izenpetu beharreko kontratuak prestatzeko, eskaintza ekonomikorik abantailatsuena hautatzeko eta kontratuak esleitzeko jarduketei dagokienez.
- Hiru entitateetako edozeini buruzkoak ere izan daitezkeela, hau da: DONOSTIA KULTURA ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAri buruzkoak edo VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. eta SAN TELMO MUSEOA sozietateei buruzkoak, kontratuak formalizatzeari eta izenpetzeari dagokienez eta berauen exekuzio eta azkentze faseei dagokienez.

2. ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Kontratu honen xede diren bideoak (promozionalak, didaktikoak nahiz propagandistikoak izan) DONOSTIA KULTURAren jarduerak eta zerbitzuak ezagutzera ematera egongo dira bideratuta.

Urtean 36 bideo izango direla kalkulatu da, horietatik % 42k, gutxi gorabehera, 1:01 eta 3:00 minutu arteko iraupena izango dute (biak barne); % 28k, gutxi gorabehera, 1:00eko iraupena izango dute (adibidez, RRSS klipek), eta % 8k, gutxi gorabehera, 3:01 eta 6:00 minutu arteko iraupena izango dute (biak barne). Gainerako % 22ak egokitzapenak izango dira.

IFK-CIF: Q2000544I

Bideo-kopuruaz eginiko kalkulu hau ezin da inolaz ere lotesletzat jo DONOSTIA KULTURArako, gutxi gorabeherakoa baino ez baita; beraz, bideo-kopuruaz eginiko kalkulua bat etorriko ez balitz kontratuen exekuzioan agerian jarritako errealitatearekin, horrek ez lioke kontratistari inongo erreklamaziorik aurkezteko eskubiderik emango.

Normalean, hilean hiru produkzio egingo dira (grabazioa, edizioa eta postprodukzioa barne); bestalde, produkzio hauek DONOSTIA KULTURAren jardueren premien arabera banatuko dira, eta hilero gehiago edo gutxiago izan daitezke.

Bideoak donostiakultura.tv kanalean, sare sozialetan eta aurkezpenetan zabalduko dira.

Irudien grabazioa kanpoko eta barruko espazioetan egingo da, DONOSTIAKO KULTURAren lokalak izan daitezke edo beharrezkoa iritzitako beste edozein espazio ere bai.

Kontratuaren xede diren bideoek DONOSTIA KULTURAren irudi korporatiboari erantzungo diote beti, Komunikazio Sailetik bestelako jarraibiderik eman ezik.

IFK-CIF Q2000544I

Formatuak:

- Kalitate handiko grabazioa (HD motakoa, 1929 x 1080)
- Entrega: MPEG4 edo antzeko formatua (1820 x 1080, 1920 x1080...).
- RRSSrako egokitzapenak formatu karratuetan edo bertikaletan (1080x1080 o 1080x 1920)

Ondoko bideoak espresuki gelditzen dira lizitazio honetatik kanpo: 6:01 minutu edo gehiago irauten dutenak, egile-bideoak, espezializazio handiko bideoak (esaterako, margolanak zaharberritzeari buruzkoak, bideo akuatikoak...) eta arte finala hirugarrenen esku daudenak (koprodukzioak, hirugarrenekiko kolaborazioak, e.a.).

3. LANAREN METODOLOGIA

DONOSTIA KULTURAren aldetik:

Hilabete bakoitzeko azken astean, DONOSTIA KULTURAk esleipendunari jakinaraziko dio, posta elektroniko bidez, hurrengo hilean egitea aurreikusitako lanak zeintzuk diren eta haietako bakoitzaren helburu komunikazionala zein den.

Halaber, ikus-entzunezko produkzio bakoitzean esku hartzen duten sailek (Antzokia, Musika, Kultur Ekintza...) bai kontaktuak bai edukiak emango dizkiote. Gainera, posible den guztietan, edukiaren gidoia ere eskuratuko zaio.

Salbuespen gisa, zerbitzuko premiengatik, DONOSTIA KULTURAk aribidean den hilabetean zehar lan batzuk egitea eskatu ahal izango du, baldin eta esleipendunari horren beti ematen badio dagokion ikuskizuna hasi baino 3 egun lehenago, gutxienez.

Esleipendunaren aldetik:

Esleipendunak DONOSTIA KULTURAren esku jarriko du bideo editatuaren lehen zirriborro bat, gainbegiratzeko eta beharbada zuzentzeko. Bideo hau Komunikazio saileko arduradunari ez ezik, bideoan jasotako programaren edo jardueraren arduradunari ere helaraziko dio. Aipatutako zuzenketak barruan sartu ondoren, lana berriro bidaliko die aipatu pertsonei, berauek arduratuko baitira bideoa zabaltzeaz.

IFK-CIF G20009411

<u>Lehen zirriborroa aurkezteko epeak:</u>

- 1:00 minutuko iraupena ez duten bideoak:

  Bideoa grabatu ondorengo hirugarren laneguneko 14:00ak baino lehen, beranduenez, entregatu beharko da bideoaren lehen zirriborroa.

- 1:01 eta 3:00 minutu arteko bideoak (biak barne):

  Bideoa grabatu ondorengo bosgarren laneguneko 14:00ak baino lehen, beranduenez, entregatu beharko da bideoaren lehen zirriborroa.

- 3:01 eta 6:00 minutu arteko bideoak (biak barne):

  Bideoa grabatu ondorengo seigarren laneguneko 14:00ak baino lehen, beranduenez, entregatu beharko da bideoaren lehen zirriborroa.

Esleipendunaren beste betebehar batzuk:

- Grabazioak ordutegi irekian egingo dira, programazioaren beraren arabera.
- Ikus-entzunezko lanen arte finalean irudi korporatiboa gorde eta zaindu egingo du.

- Urte bakoitzeko urtarrilaren 15a baino lehen, esleipendunak, DONOSTIA KULTURAko Komunikazio Sailarekin koordinatuta, aurreko urtean egindako bideoei dagozkien ikus-entzunezko azken produkzioak eta grabazio landugabeak entregatuko ditu, artxiba daitezen. Hala ere, DONOSTIA KULTURAk dokumentazio aipatua eskatu ahal izango du data hori baino lehen, aribidean den urtean zehar.
- Kontratua gauzatzeaz arduratzen diren pertsonetako batek (grabazio eta edizio lanak egiten dituen batek), gutxienez, aipatutako zerbitzuak ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) eskaintzeko moduan egon beharko du. Betebehar hau betetzen dela dagozkion curriculumekin egiaztatuko da edo, hala badagokio, DONOSTIA KULTURAk egoki deritzon moduan egiaztatuko da.

Donostian, 2019ko otsailaren 14an.

donostiakultura

Jaime Otamendi Muñagorri
Zuzendari Kudeatzailea

IFK-CIF Q2000541I